

# Eli deuna ta Odeitxoa



NDRE - LUN eskututsua bai litzan urinera begira daukazu Karmel-tontora. Onetan daukaz itxaso andiko olatu bistsuak; orain arkaitzak eratsi nairik aparez gañezka, gero bake-bakean, ume irudi, lo gozoaren kolkoan.

Gomuta atsegin-samurez beterikoa dozu, irakurle, Kormel'go tontor au. Zenbat gizon eta emakume, bizitz-amesez abailduta, igon izan diran mendi-kukutz onta-ra, bake-egi-atseden-bila! Gain onetsi onetatik zenbatek zuzendu dabezan Josugana biotz-bafutiko eskari sutsuak! Zenbatek ase daben zeruko zorion-izpiz bere gogo-egari bizia!

Edesti deunak diñoskunez, antxe batu ziran bein, Eli igarle andiak aginduta, Israel-eria ta bertako sasi-igarle guztiak, Baal guzurrezkoaren yaraiileak. Akab efe-ge gaiztoak Jaungoiko egiazkua aldaritzen eben igarle onak eriotzara epaitu ta burua moztu eutsen. Eli bakarik aurkitzen zan. Zer egin? Jaungoikoa'ren adoreak biotza indartzen eutson, eta guzurrezko igarle ta efi osoa Kar-mel'go mendi-tontorean baturik, danen aurrean, iñoz baño kementsuago onela diadar dagi: Israel'go semeak, zeru-luñen Jaungoikoa'k autu ta ainbeste eruki-erakutsiz orniduak, noz arte izango zarie biotz-gogor eta eskar gaiztokoak? Zer dala-ta egizko Jaungoikoa itxi ta Baal' en jañale egin zarie? Zuok Jaungoikoa Baal'egaz bardin-du gura dozue; auxe da zuen pekaturik andiena; baña iñor bere ezin daikioe Jaun biri otsein izan. Zuen Jauna Jaun egiazkoa ba-da, jañaitu berari bakarik eta ezetsi atseritaren Jainkoak; Baal baldin ba-da, ostera, zabiltze bere jarai ardura barik. Jaungoikoa'ren igarleak, neu ez beste guztiak, batzuk ilak izan dira beste batzuk or da-


biltz ipurloka arerioakandik iges. Baal'en igarleak lareun eta berogeita amaretik gora dira; baña ez nabe ikaratzen, Jaungoikoaren burukatzen danak bakarik garaitza jadetsiko dau-ta. Zuok guztiok nire ustez ontzat artuko dausazuen asmu bat buruan jarri yat: Ekari egizuez idi bi, bata Baal'en igarleentzat eta bestea neuretzat. Idi oneik Jaungoikoari eskiñiko daultsoeguz, zuek Baal'i ta nik be neure Jauna'ri; idiok gero zati-zati egingo doguz, eta zuek zeuena altara baten gañean ipiñiko dozue ta nik be neurea beste altara baten gañean; ondoren zeuen Jaungoikoari deadar egingo dautsazue ta nik neureari, eta deadařen entzunara opagaya eretako zerutik sua bialtzen dauan Jaungoikoa, orixe izango da egiazko Jaungoikoa.

Eri osoak aintzakotzat artu eban Eli'ren erabagia. Eta asi eben euren idi-eskintza. Baal'en igarleak izan ziran lenen idia eskiñi ebenak. Zatitu ta ařiz egindako altara gañean ipiñirik, euren Jauna'ri deika asi ziran. Goizetik eguerdirirarte ekin ařen, baña, ez eben ezertxo be lortu; eztari betean oyu egin ařen, Baal ixilik, ez ebazan entzuten uřean aren eskariak.

Ezer ez ebela jadesten eta Eli andiak txantxetan: Ekin, ekin, diňotse, zoliago ots-egizue, zuen Jainko ori itxuraz gorā da-ta. Bape zuen ardura barik norbaitegaz maitekiro autuan yardungo dau, bidez ibili dabil, edo ařoztetxen baten jolasean diardu, edo-ta nasai-nasai lo datza nonbait; biziago zarata, itxartu dadin. Baña, alan eta guzti be, ez eben ezer lortu, Baal ez etořen eurak urgazten.

Gero, Eli igarleak bere opagaya artu ta Jainkoari eskiñi eutson. Amabi ařizko maya jasorik, onen ganean egur-piloa ipiñi eban eta egun ganean idi zatitua. Ařizko mai inguruau efetena egiteko agindu ondoren, idi, egur eta aři ganera ur asko bota eban, inguruko zer guztiak ur-apatzetan ipiñi arte. Onen ostean altara oñetan belau-niko jarri, begi-eskuak zerurantz, eriaren agirian otoitz

KARMEL - MENDIA



zengored naziak apod. Aitutxenak zure uztentzak giz  
etorri gure auzialari zundatzen ditzan zelako emanentz

labur-sutsua egin eban. Bereala su andia jatsi zan zerutik, idi, egur, altara ta ereten-bera erion ura zeatz efe ta kiskaldu ebazana.

Ain gauza ařigaria ikusirik, an batuta egoan eři guztia, bildur eta ikaraz, egindako pekatuen parkamena Jaungoikoari eskatzen eutsoela: Auxe da, iñoen, egiazko Jaungoikoa, Beragan siñisten dogu. Eřia bide onera etorela ikustean, pozik eta adoretsu aurkitzen zan Eli andia, ta Baal'en sasi-igarle guzti arei oratzeko agindu eban; Kison eritxon eřekastora eroan eta antxe dan-danai burua moztu eutsen.

Eli Deunak, garaitze au lortu ta israeldarok egiazko Jaungoikoa gurtzen ebela jakinik, iru urte ta erdian euri-tantarik jausi etzan eři ta eriko soloakaz eřukitzan, eta laster euri bigun-ugaria etoriko zala itz-emon eutson Akab eřegeari.

Jazokun miragarri onen ondoren Akab eřegea etxera itzuli zan eta Eli mendi ganera Jaungoikoari eskerak egiten. Luzaro ekin eutson otoiari, ta gero gorago igon eta euri-antzak agiri zan ikusteko agindu eutson bere moroyari. Eli igarleak zirautsona egiñik igon zan moroya, baita laster biurtu be ezer etzala agiri-ta. Oindiño sutsuago ekin eutson Eli'k otoiketan, eta gauza bardina agindu eutson moroyari; zazpi aldiz egin eban beste ainbeste. Eta zazpigarenean, bayetz iñohan moroyak, laster luřa bustiko eban euri-antza agiri zala; giza-oñatzaren antzeko odei txikia jagiten zan astiro itxas-barenetik. Odei txiki baňa urtsu ori itxasaldetik Karmel-mendirantza etoren, eta luzaro legor gorrian egon zirian luřalde areik urez ase ebazan.

Eli Deuna jagi ta pozařen odeitxoa ikusten joan zan. Antxe, Karmel'go mendi-bizkařetik, Odeitxo suri aren-gan Jaungoikoaren Ama, eskařez betea ta Sortzez garbia ikusi eban iragarle-indarez. Eta ain gizkarbi eder eta bakanaren aufean zoraturik, beingo baten bere garbitasuna opaldu eutson. Biotz-biotzez maitatu eban jaio

baño bederatzireun urte aurétil. Antxe bere omen eta deduz ortsiko izaŕak baño ugariago izango zan lagundi andia, Karmeldaren Gopatza, irasi edo sor-azo eban. Antxe geroago, Edestiak dińoenez, zeruko Ama samur ori goresteko munduan izan danik lenengo eleizetxoa jaso eben Eli ospatsuaren jaŕaileak, Karmeldaraka. Aŕezkeria ia beti bizi izan diran Karmelgo Amaren semeak antxińa-antxińatik Odeitxo zori antz-pean Eli k aurétiak ikuskatutako goi-Eregińari eregiriko eleiz-etxe ta mendi -gain maitatu aretan.

JAGOBA, K. O.



JANARIAK

# FUENTE' TAR SEBASTEN

BILBAO

ALGORTA

SANTURZE

## OPILTOAK (galetak)

**ARIOLA**

B I L B A O